

Batera Jauzi elkarrizketa prozesua. Euskararen erabilera bultzatzeko pentsamendu berri(tu) bat eraikitzen

Jasone Mendizabal Altuna*
Iñigo Retolaza Eguren**

Laburpena. Artikulu honen helburua Batera Jauzi elkarrizketa prozesuko ikaskuntza metodologikoak azaltzea eta sintetizatzea da. Hau da, prozesua diseinatzeko eta errazteko erabili dugun logika zehazten du, eta ikaskuntza esanguratsuenak azaltzen ditu. Lehenik eta behin, prozesua abiatzeko Euskaltzaleen Topagunearen arrazoiak eta euskararen egungo egoerari buruzko irakurketa jasotzen ditugu. Jarraian, erabilitako metodoari zentzua ematen dion marko teorikoa azaltzen dugu. Horren ondoren, marko metodologikoaren osagai nagusietan sakontzen dugu: Aldaketaren Teoria, aldaketaren dimentsioak, premisa metodologikoak, taldearen osaera, egitura eta prozesu osoaren gobernantza-sistema. Amaitzeko, azken atalean antzeko izaera duten elkarrizketa-prozesuak aurrera eramateko garrantzitsutzat jo ditugun ikaskuntzak jasotzen ditugu. • *Hitz gakoak:* Aldaketa Teoria, elkarrizketa, euskararen erabilera, justizia epistemikoa, Batera Jauzi.

Abstract. The aim of this article is to explain and synthesize the methodological lessons learned from the Batera Jauzi dialogue process. In other words, it determines the logic with which we have designed and facilitated the process and rescues significant learning. First of all, we explain the reasons for Euskaltzaleen Topagunea to start the dialogue process, and we describe the movement's view about the current situation of the Basque language. We then set out the theoretical framework which gives meaning to the method used. We then delve into the main elements of the methodological framework: the theory of change, the dimensions of change, the methodological premises, the composition of the group, the structure and the system of governance of the whole process. Finally, the last paragraph contains the lessons that we have considered important for the conduct of similar dialogue processes. • *Key words:* Theory of change, dialogue, use of Basque language, epistemic justice, Batera Jauzi.

Sarrera-data: 2023/10/20. Ebaluazioak: 2023/12/06. Onartze-data: 2023/12/08

Zitatzeko modu gomendatua:

Mendizabal Altuna, Jasone eta Iñigo Retolaza Eguren. 2023. "Batera Jauzi elkarrizketa prozesua. Euskararen erabilera bultzatzeko pensamendu berri(tu) bat eraikitzen". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 128, 35-61. Andoain (Gipuzkoa)
<https://doi.org/10.55714/BAT-128.2>

CC BY-SA 4.0

* Jasone Mendizabal Altuna | Euskaltzaleen Topagunea | jmendizabal@topagunea.eus | ORCID kodea: <https://orcid.org/0009-0008-2394-1037>

* Iñigo Retolaza Eguren | University of Sussex | iretolazae@gmail.com | ORCID kodea: <https://orcid.org/0009-0005-9138-1180>

1. SARRERA

I

Euskaltzaleen Topagunearen (Topagunea) helburua da euskararen erabilera ohikoa eta eroso izatea Euskal Herrian. Agerikoa da egungo errealitatea Topagunearen helburutik oso urrun dagoela, euskararen erabilera % 12-% 14aren artean, ez aurrera eta ez atzera ibili baita azken hamarkadatan. Hainbat eremutan, euskararen biziberritze-prozesuak irabazi garrantzitsuak izan ditu, euskararen ezagutza nagusiki, eta baita beste hainbat esparrutan ere. Hala ere, beste eremu batzuetan, ahultze-prozesuak dirau eta galera berriak ere ikusten ari gara, eremu euskaldunenetan kasu.

Euskara bidegurutze batean dago, eta une historiko honetan egiten duguna biziberritzea azkartzeko edota galera prozesuan murgiltzeko erabakigarria izango da.

Euskararen afera, abiada bizian eraldatzen ari den errealitate konplexuan kudeatzea dagokigu eta euskara gizartearekin era berrian bir-konektatzeko ahalegina da *Batera Jauzi* jendarte laborategia. Topagunea herri proiektu ilusionatzaile zabal bat eragiteko gakoena eta era berrien bila abiatu da beraz, dinamika honekin.

Testuinguru horretan, lan honen helburu nagusia Topaguneak jendarte laborategi hau abian jartzeko izandako arrazoiak azaltzea ez ezik, prozesuan jarraitutako Aldaketa Teoriaren (AT) metodologiak ekarritako ikasketak azaltzea da. Horretarako AT-ren oinarri teorikoa, *Batera Jauzi* prozesuan egindako ibilbidea eta prozesuko ikasketa nagusiak azaltzen dira. Beraz, artikulu honetan prozesuaren edukizko emaitza ez dugu aztertut, prozesuaren lanketa metodologikoa eta ikasketak jorratu ditugu nagusiki, antzeko elkarrizketa-prozesuetarako baliagarria izateko helburuarekin.

2. TOPAGUNEAREN IRAKURKETA ETA TESTUINGURUA

I

Hamabi urte igaro dira Topaguneak bere lehenengo Kongresua egin zuenetik eta mugimenduaren oinarriak eta arnas luzeko helburuak jasotzen dituen Oinarriparak txostena onartu zuenetik (Euskaltzaleen Topagunea 2011).

Dozena urte hauetan Oinarriparak txostenean jasotakoak garatzeko

Euskararen afera, abiada bizian eraldatzen ari den errealitate konplexuan kudeatzea dagokigu eta euskara gizartearekin era berrian bir-konektatzeko ahalegina da "Batera Jauzi" jendarte laborategia.

Gero eta abiada azkarragoan gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, politiko, teknologiko, ekologiko eta sozialek etengabeko berrikusketan eta berrikuntzan jardutea eskatzen digute. Hori dela eta, Topaguneak hamarraldi berrirako bere helburu eta lan-ildo estrategikoak definitzeko III. Kongresua antolatzea erabaki zuen 2022an.

eta euskaltzale mugimendua berritzeko eta sendotzeko egindako aha-leginek fruitu garrantzitsuak eman dituzte. Alde batetik, Topagunea Ipar Euskal Herrian saretu da eta nazio-mailako egitura izatera heldu da. Beste aldetik, mugimenduaren pentsamendua eta diskurtsoa landu ditu, ahots propioa garatuz eta euskalgintzako erreferente garrantzitsua bilakatuz. Azpimarragarria da era berean, euskararentzat proiektu estrategikoak garatzeko Euskaltzaleen Topaguneak bere ibilbidean erakutsi duen berrikuntzarako gaitasuna. Honen adibide gisa aipa daitezke, besteak beste, Mintzalagun egitasmoak, TOKIKOM, Kukulaisi, aniztasun proiektuak edota Euskaraldia¹.

Bestalde, gero eta abiada azkarragoan gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, politiko, teknologiko, ekologiko eta sozialek etengabeko berrikusketan eta berrikuntzan jardutea eskatzen digute. Hori dela eta, Topaguneak hamarraldi berrirako bere helburu eta lan-ildo estrategikoak definitzeko III. Kongresua antolatzea erabaki zuen 2022an.

Topaguneko Zuzendaritza Batzordearen gidaritzapean hasi zen lanean bazkideekin osatutako Kongresu Batzordea 2022ko udaberrian, honako helburuarekin: datorren hamarkadan euskararen erabilera jauzia eman ahal izateko, mugimenduaren oinarriak berrikusi eta estrategia lerro nagusiak erabakitzea. Azpi helburu gisa, berriz, honakoa erabaki zen: mugimenduarentzat barne dinamika kohesionatzailea izatea.

Definitutako helburua lortzeko gizarte eraldaketa handi bat beharko zela eta jendarte eraldaketarako metodologia bat erabiltzeko premia ikusi zen. Topaguneko Kongresu Batzordeak eta Zuzendaritza Batzordeak hainbat lan-saio egin zituzten 2022ko irailean ATren proposamena ezagutu eta honen inplikazioak aztertzeko. Ez eztabaidarik gabe, eta hasieran zalantza askorekin, azkenean bide berritzaileari ekiteko erabakia hartu zen, ziurgabetasunari aurre egin eta arrisku berriak hartu beharraren kontzientziatik. Topaguneak prozesu hau abiatzeko izandako ausardia eta eskuzabaltasuna izan da gerora prozesuan parte hartu zuten kide askok azpimarratutako ideia.

1 Egitasmo hauen berri ikus Euskaltzaleen Topagunearen webgunea: <https://topagunea.eus/>

3. MARKO TEORIKOA

I

Laburbilduz, bost alderditan oinarritzen da Topaguneak sustatutako *Batera Jauzi* prozesuan erabilitako metodologia eta marko teorikoa: demokraziaren sakontzea, gizarte- eta hizkuntza-bizikidetza, (in)justizia epistemikoa, ikerketa-ekintza partehartzailea eta askotariko aktoreen arteko elkarrizketa.

3.1. Demokraziaren sakontzea

Gaventak dioen bezala, eredu demokratiko liberal-ordezkarria munduaren parte handi batean zabaldu bada ere, egia da herritarren parte-hartzea gero eta murriztagoa dela eta gure ordezkarri politikoen aldezkatu bozketara mugatu dela nagusiki (Gaventa 2006). Bizi dugun testuinguru kapitalistan horrek esan nahi du herritarrek gero eta gutxiago parte hartzen dutela beren bizitzari eragiten dieten politika publikoei forma eta edukia ematen, eta politika horien erabiltzaile (edo biktima) soilak bihurtzen direla (Cornwall eta Gaventa 2001).

Gaventak eta beste egile batzuk demokrazian sakontzeko ikuspegiaren alde egin dute, gobernantza parte-hartzailearen eta deliberazioaren bidetik (Fung eta Wright 2001; Hajer eta Wagenaar 2003). Zentzu horretan, “gobernantza parte-hartzailea herritarren parte-hartze sustantiboagoa eta ahalduagoa garatzeko eta mantentzeko proiektu politikoa da, normalean demokrazia liberean ematen ez dena” (Gaventa 2006).

Gure kasuan, herritarren eta sistema politiko-instituzionalaren arteko arrakala horrek, finean, defizit demokratiko horrek, euskararen erabilera areagotzeko politika publikoak diseinatu eta inplementatzeko orduan herritarren parte-hartzea murriztu eta mugatzen du.

3.2. Gizarte- eta hizkuntza-bizikidetza

Euskal Herrian bizikidetza osasuntsu bat garatzeko garrantzitsua da hiztun-komunitate ezberdinen artean ekitatezko harremanak garatzea eta dinamika errestitutiboak ezartzea. Hiztun-komunitateen arteko elkarbizitzan aurrera eginez gero, gizarte-elkarbizitzan aurrera egin ahal izango dugula uste dugu, eta alderantziz. Ikuspegi honek euskararen biziberritze-prozesuan jauzi bat ematen lagunduko lukeela uste dugu.

***Euskal Herrian
bizikidetza
osasuntsu
bat garatzeko
garrantzitsua
da hiztun-
komunitate
ezberdinen
artean ekitatezko
harremanak
garatzea eta
dinamika
errestitutiboak
ezartzea.***

**Euskararen
erabilera
areagotzeko
ez da nahikoa
euskaldun
gehiagok
euskaraz gehiago
hitz egitea.
Beharrezkoa
da horrekin
batera, erdal
hiztun kopuru
esanguratsu batek
euskara ikastea
eta erabiltzea
eguneroko
gizarte-
harremanetan.**

3.3. (In)justizia epistemikoa

Miranda Frickerrek “injustizia epistemikoa” terminoa modu honetan proposatzen eta definitzen du (Fricker 2007, 2017): injustizia epistemikoa ezagutzeko modu batek (adibidez, akademiko-zientifikoak) beste ezagutza-mota batzuk (esaterako herri-esperientziaren epistemologia) diskriminatzen edo gutxien dituen fenomeno da. Kontzeptu horren sorrerarekin Frickerren asmoa kalte mota oso berezi bat definitzea izan zen, adibidez, honakoa gertatzen denean: “Norbaitek, modu xaloan edo oharkabea, beste pertsona bat gutxien duenean, subjektu epistemikoaren estatusari dagokionez” (Fricker 2017). Definizio horri honakoa erantsi ahalko litzaioke: pertsona edo pertsona-talde batek beste pertsona edo pertsona-talde baten ezagutza sortzeko moduari buruz nahita eragindako mespretxu edo kaltea.

Diskriminazio epistemologikoaren prozesu kontziente eta inkontzientea honek hainbat forma har ditzake, hala nola, injustizia testimoniala edo hermeneutikoa. Frickerrek dioenez, “injustizia testimonialaren kausa aurreiritzia da, eta, horren ondorioz, hiztun bat gutxiesgarria da eta epistemikoki txikiagotzat hartzea eragiten du (zuzeneko diskriminazioa). Injustizia hermeneutikoa honako hau da: “hiztun batzuk testuinguru bidegabean eta desabantaila-testuinguru batean kokatuta daude, bai ulertzeko, bai beste pertsona batzuek desabantaila-esperientzia hori bera uler dezaten lortzeko (zeharkako diskriminazioaren beste modu bat da)”. Frickerrek bi fenomeno horiek “injustizia epistemiko diskriminatzaile” gisa kokatzearen alde egin du. Murguiaren arabera, Frickerren gogoetak “epistemologia, etika eta prozesu sozial eta politikoak bateratzen dituzten arazoei zuzentzen zaizkie” (Murguía 2016). Oinarri horretatik abiatuta, esparru hau baliagarri zaigu hizkuntza ezberdineta-ko hiztunek hautematen dituzten balizko diskriminazio edo gutxiesteak ulertzeko.

Euskararen erabilera areagotzeko ez da nahikoa euskaldun gehiagok euskaraz gehiago hitz egitea. Beharrezkoa da horrekin batera, erdal hiztun kopuru esanguratsu batek euskara ikastea eta erabiltzea eguneroko gizarte-harremanetan. Orduan, garrantzitsua da euskararen erabilera indartzeko, testimonio- eta hermeneutika-injustiziaren dinamikak ekiditea. Afera hau garrantzitsua da bai euskararen hedapenerako estrategikoa izan daitekeelako, eta, baita, bizikidetzarako etika osasuntsuago bat eraikitzeko balio duelako ere.

3.4. Ikerketa-ekintza partehartzailea

Fals-Borda eta Anisur Rahman ikerketa-ekintza partehartzailearen aitzindariak, ikerketa tradizional-positibistan subjektuaren eta objektuaren arteko harremanari buruz ematen den dikotomia faltsua gainditzearen garrantzia azpimarratzen dute (Fals-Borda, eta Anisur Rahman 1991). Egile horien arabera, eta baita hausnarketa kooperatiboaren (Heron 1996) eta helduen esperientzia-ikasketaren (Kolb 1984, Moon 2004) beste adierazle batzuen arabera, helduak bere esperientziaren zentzua praktikaren eta ekintzaren bidez egiten du eta gero ideia eta kontzeptu bihurtzen du.

Fals-Bordak gaineratu duenez, “prozesu honek azterketa kualitatiboari lehentasuna ematen dio, kuantitatiboari izan ordez. Bere funtsa da bihotzaren logika afektiboa eta sentimenduak erabiliz gehiago irabazten dela, bulego eta laborategietatik datorren analisi hotz eta mentaletik baino” (Fals-Borda eta Anisur Rahman 1991, 8).

Gure posizionamendua bat dator Fals-Bordarekin, prozesu parte-hartzaileagoak eta afektiboagoak beharrezkoak baitira datozen urteetan euskararen erabilera bultzatzeko moduari dagokionez, egungoa gaindituko duen paradigma berri bat ahalbidetzeko. Ez da nahikoa ezagutza akademiko-zientifikoa; herri-esperientzia integratu behar dugu. Eta ezagutza euskalduna ere ez da nahikoa, begirada ez-euskalduna ere ekarri behar dugu. Uste dugu episteme horien guztien arteko osagarritasunak eta elkarrizketak lagunduko dutela euskararen mundura jende gehiago erakartzeko erronkan.

3.5. Elkarrizketa eta gizarte-komplexutasuna

Zer ulertzen dugu elkarrizketaz? Hal Saunders arabiar-israeldarren bakte-prozesuan bitartekariaren iritziz, elkarrizketa honako hau da:

“Benetako elkarrekintza prozesu bat, zeinaren bidez gizakiek bestearengandik ikasten dutenaren ondorioz beren burua aldatzeko bezain sakon entzuten baitiote. Bakoitzak ahalegin handia egiten du besteen kezka bere argazkian kontuan hartzeko, nahiz eta desadostasunak bere horretan iraun”. (Saunders 1999)

Prozesu parte-hartzaileagoak eta afektiboagoak beharrezkoak dira datozen urteetan euskararen erabilera bultzatzeko moduari dagokionez, egungoa gaindituko duen paradigma berri bat ahalbidetzeko. Ez da nahikoa ezagutza akademiko-zientifikoa; herri-esperientzia integratu behar dugu.

Gauzak beste era batera egiten ikasi behar dugu, modu irekiagoan eta ez ohikoan. Horrek esan nahi du gure ideologia, identitatea edo munduaren ikuspegia partekatzen ez duten pertsonekin harremanak izateak hitz egiteko eta entzuteko beste modu bat eskatzen duela.

Ameriketako Estatuaren Erakundearen definizioarekin osa genezake goikoa, elkarrizketak honakoa dio:

“[elkarrizketa] gobernu-erakunde batek edo batzuek behar bezala konpondu ezin dituzten gai sozio-politiko eta ekonomikoei aurre egiteko, arazoak konpontzeko erabiltzen den prozesu bat.” (Pruitt eta Thomas 2008, 19).

Orduan, nola landu Euskal Herrian euskararen erabilera bultzatzea bezalako auzi konplexu bat? Adam Kahane elkarrizketa multiaktoreko prozesuen bideratzaileak gogorarazten digu arazo konplexu bat konpontzeko, funtsean, bi modu daudela: indarrez edo elkarrizketaren bidez (Kahane 2005). Kahanen arabera, hitz egiteko eta entzuteko dugun modu komunak gure arazo konplexuak bere horretan jarraitzea bermatzen du, edo indarrez bakarrik konponduko dira. Egilearen arabera, gauzak beste era batera egiten ikasi behar dugu, modu irekiagoan eta ez ohikoan. Horrek esan nahi du gure ideologia, identitatea edo munduaren ikuspegia partekatzen ez duten pertsonekin harremanak izateak hitz egiteko eta entzuteko beste modu bat eskatzen duela.

William Isaacsek honakoa dio sarritan “memoria emozional batetik entzuten dugula, orainetik beharrean” (Isaacs 1999, 98). Berak argudiatu duenez, “elkarrizketan entzutearen beste dimentsio bat aurkitzen dugu: entzuteko trebetasuna ez ezik, elkarrekin entzuteko trebetasuna, osotasun handiago baten parte gisa. Horrek esan nahi du gauzak norberaren ikuspegitik entzuteaz gain, tartean dagoen jendearen arteko harreman-sare osoa nolakoa den eta nola sentitzen den, horren arabera ere entzuten dela” (Isaacs 1999, 108). Beraz, elkarrizketak alderdi kognitiboetan ez ezik, emozionaletan eta harremanetan sakontzeko esparrua ematen digu.

Elkarrizketa eraldatzaileak egiteko orduan, eztabaidaren eta elkarrizketaren arteko aldea argiago bereiztea komeni da, normalean elkarrizketara baino gehiago eztabaidatzera jotzen baitugu. Jakina, solasteko bi moduen erabilgarritasuna eta garrantzia aitortzen ditugu. Hurrengo diagraman ikusten den bezala, bi solasteko era hauek bere ezaugarriak eta berezitasunak dituzte:

1. Diagrama. Elkarrizketaren eta eztabaidaren arteko aldea

	eztabaida	elkarrizketa
Premisa	Edozein egoeratan erantzun bat dago edo ikuspegi egoki bat; <i>normalean norberarena</i> Kontraesanik ezaren printzipioan oinarritua (hau edo hura)	Edozein egoeratarako askotariko erantzun eta ikuspegi zuzenak egon daitezke; <i>norberarena ere tartean</i> . Osagarritasun printzipioan oinarritua (hau eta hura ere bai)
Helburua	Irabaztea, zuzen egotea, ideia saltzea, persuaditzea edo konbentzitzea	Beste pertsona ulertzea, bere ikuspegitik (ulertzeak ez du esan nahi ados egotea)
Jarrera	Ebaluatzailea eta kritikoa	Kuriosoa eta irekia
Galdera nagusia	Zertan huts egiten du ikuspegi edo ideia honek?	Zer ikasi dezaket ikuspegi edo ideia hontatik?
Jokabidea	Entzutea baino gehiago hitz egin Aurreiritziz entzun Bestea zalantzan jartzeko ikertu Nire ustea, egia gisa	Hitz egitea baino gehiago entzun Aurreiritzirik gabe entzun Argitzeko eta ulertzeko ikertu Nire ustea, aldatutakoa gisa

Iturria: Herzig eta Chasin 2006

Finean, uste dugu Euskal Herrian bizi diren hizkuntza-komunitate ezberdinen artean zubiak eraikitzeke elkarrizketaren praktika oso lagungarria izan daitekeela.

4. MARKO METODOLOGIKOA

Ezarritako esparru teorikotik abiatuta, Aldaketa Teoriaren metodologia (Retolaza 2010, 2014, 2018) erabiltzea erabaki zen prozesu osoaren ardatz artikulatzaile gisa.

Horretarako, arestian aipatutako ideiak eta kontzeptuak lurreratzen lagundu zuten premisa metodologiko batzuk definitu ziren. Bestalde, taldearen osaketari arreta handia jarri zitzaion. Elementu horiek guztiak kontuan hartuta -Aldaketa Teoriaren urrats metodologikoak, premisak eta taldearen osaera- gobernantza-sistema eta elkarrizketa-prozesuaren konplexutasunari eusteko gai izango zen egitura diseinatu zen, Topaguneak ezarritako irizpideen baitan. Jarraian, elementu horietan sakonduko dugu.

**Aldaketa Teoria
bat egitean,
aldaketari buruz
ditugun azpi
suposizioak
azaltzen dituen
aldaketa-logika
bat eraiki
nahi dugu.
Pentsamendu-
ekintzaren
logika horrek
gure ekintza
estrategikoak
gure ingurune
hurbilean
eragin nahi
ditugun emaitza
eta aldaketa
batzuekin
konektatzen ditu.**

4.1. Aldaketa Teoria

Zer da Aldaketa Teoria bat? Ondoren zehazten dira teoria horren definizio batzuk.

- Aldaketa Teoria etengabeko hausnarketa-prozesua da. Aldaketa bat aztertu eta nola gertatzen den esploratzen du, eta horrek esan nahi duena aztertu testuinguru, sektore edo talde jakin batean jokatzen dugun rolari dagokionez. (James 2011)
- Gizakiek, erakundeek, sistema politikoek edota eko-sistemek nola funtzionatzen duten azaltzeko, programa oro sinesmenez, suposizioez eta hipotesiz beteta egon ohi da. Aldaketa Teoriak suposizio ezberdin horiek guztiak artikulatu nahi ditu, programa batean aldaketa nola gertatuko den azaltzeko. (Funnell eta Rogers 2011)
- Gizarte-aldaketako prozesuen konplexutasunean nabigatzeko pentsamendu-ekintzaren ikuspegi bat. (Retolaza 2010)

Laburbilduz, Aldaketa Teoria bat egitean, aldaketari buruz ditugun azpi suposizioak azaltzen dituen aldaketa-logika bat eraiki nahi dugu. Pentsamendu-ekintzaren logika horrek gure ekintza estrategikoak gure ingurune hurbilean eragin nahi ditugun emaitza eta aldaketa batzuekin konektatzen ditu.


Nola laguntzen digu Aldaketa Teoriak? Retolazaren proposamenaren arabera, honakoak dira teoria horren erabilera ekartzen dituen onurak (Retolaza 2023)

1. Ikuspegi komunak eraikitzen laguntzen du (narratiba partekatuak).
2. Aliantzak eta lankidetzak sortzen laguntzen du (ekintza koordinatua).
3. Gatazkak kudeatzen eta lankidetzak-akordioak sortzen laguntzen du.
4. Erakunde baten programa eta esku-hartzei argitasuna eta fokua ematen diote.
5. Garapenaren eta antolaketa-aldaketaren gida bihurtzen da.
6. Bere elaborazioan edota ezarpenean parte hartzen dutenak ahalduztzen ditu.
7. Komunikazio-tresna indartsu gisa erabil daiteke.
8. Begiraletza, ebaluazio, erantzukizun eta ikaskuntzarako laguntzen du

Aldaketa Teoriaren ikuspegiak helburu eraldatzailea du. Demagun pentsamendu berri bat ez ezik, proposamen berri horrek tartean dauden aktoreen portaera-aldaketak ere azaltzen dituela.

Beheko diagraman azaltzen den bezala, Aldaketa Teoria bat garatzeko orduan urrats metodologiko zehatz batzuk jarraitzen dira. Urrats bakoitzak galdera nagusi baten oinarritzen da.


2. Diagrama. Aldaketa Teoria baten urrats metodologikoak



Iturria: Retolaza 2023

Batera Jauzi Aldaketa Teoriak lau dimentsio aztertu ditu gizarte-aldaketak hobeto ulertzeko: dimentsio pertsonala, harremanen dimentsioa, dimentsio kulturala eta estrukturala. Dimentsio horiek aplikatzeak narritiba eta aukera desberdinak garatzeko aukera ematen du aldaketa horiek ulertzeko edo eragiteko orduan. 3. Diagraman ikusten den bezala dimentsio bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta bata bestearekin sistemikoki lotuta daude, osagarriak dira.

3. Diagrama. Aldaketaren dimentsioak




Iturria: Retolaza 2010, Wilberren lau dimentsioen moldaketa (2001, 2007).

4.2. Premisa metodologikoak

Lehen esan bezala, premisa horiek marko teorikoarekin elkarrizketan daude. Premisak honako hauek izan dira:

4. Diagrama. Batera Jauzi prozesuaren premisa metodologikoak



Iturria: Egileak

“Eskatzen dena ez da pentsamenduaren integrazioa, edo ezarritako unitate moduko bat, izan ere, ezarritako edozein ikuspuntu bere baitan beste zati bat besterik ez litzateke. Are gehiago, gure ikusteko modu guztiak errealitate bakar bati begiratzeko modu ezberdintzat hartu behar dira, bakoitza nolabaiteko balioarekin, non guztiak egokiak diren.”

David Bohm (1980, 9)

- *Begirada sistemiko-komplexua.* Arreta berezia jarri da (f)aktoreen arteko interdependentzian, espazio-dinamizazioaren harremanean, eredu mentalen identifikazioan, prozesuan zehar sortzen diren interakzioen ondorioz sortzen ari diren dinamiketan, eta ziurgabetasunean ikasteko eta aldatzeko aukeragisa.
- *Osagarritasun-printzipioa.* Kontraesanik Ezaren Printzipioak ez bezala (hau edo hura, zurea edo nire,

eztabaida), osagarritasun-printzipioak (hau eta hura, zurea eta nire, elkarrizketa) aniztasuna eta konplexutasuna era sortzailean kudeatzen laguntzen digu.

- *Ikuspegi dialogikoa.* Elkar eratzeko eta hitz egiteko modua hainbat elementutan oinarritzen da: epaiketa bertan behera uztea, beste begirada eta modu batzuetara irekita egotea, aurre-epaiketa ez egiteko galdetzea, galdera eta zalantza berriak elkar-sortzea, ulertzeko eta ez epaitzeko entzutea, harremana zaintzea, egiaren jabe ez izatea.
- *Kanal anitzeko ikaskuntza.* Begirada holistiko batetik, pertsonen arazoetik ikasten dugu, baita emozioetik ere. Hainbat kanalen bidez ikasten dugu: burua, gorputza, ikusmena, alderdi sinbolikoa, grafikoa, erlazionala, ahozkoa, etab. Pertsonok gure kasa ez ezik, beste pertsona batzuekin batera ere ikasten dugu.
- *Prozesu iteratiboa eta interaktiboa.* Aldaketa Teoriaren diseinua malgua da, eta aurrera egin ahala egokitzen da, elkarrizketa taldeak ekitaldietan aurrera egin ahala (tailerrak, bizikidetzak) eta kontsultatan (kontraste-taldeak, elkarrizketak, on-line hitzaldiak) egi-tuten dituen ikaskuntza eta berrikuspen berriak sartzeko.
- *Sormena.* Gauza bera galdetzen badugu, ez dezagun espero jada daukagun erantzuna ez den beste erantzunik. Errealitate-proposamen berriak sortzeko, ingurune sortzailea behar da, etorkizun hobe baterantz proiektatzeko modu ez-ohikoa.

Gauza bera galdetzen badugu, ez dezagun espero jada daukagun erantzuna ez den beste erantzunik.

Errealitate-proposamen berriak sortzeko, ingurune sortzailea behar da, etorkizun hobe baterantz proiektatzeko modu ez-ohikoa.

4.3. Elkarrizketa taldearen osaera

Aldaketa Teoriaren proposamenari jarraiki Elkarrizketa Talde Eragilearen osaketa ahalik eta anitzena eta osagarriena lortzeko markoa landu

Arreta handia jarri zitzaion elkarrizketa taldearen aniztasunari, ordezkaturako identitateen arteko elkarrekintza esanguratsua aberastu asmoz. Helburu modura jarri genuen talde honen ekoizpenak Topagunearen pentsamendu-ekintza estrategikorako ezezik, gizarte osoarentzat ere balioa sortzea.

zuen Topaguneak, askotariko profil eta begiradak bermatu ahal izateko taldean. Arreta handia jarri zitzaion taldearen aniztasunari, ordezkaturako identitateen arteko elkarrekintza esanguratsua aberastu asmoz. Helburu modura jarri genuen talde honen ekoizpenak Topagunearen pentsamendu-ekintza estrategikorako ezezik, gizarte osoarentzat ere balioa sortzea.

Taldea osatzeko erabilitako irizpideak honako hauek izan ziren:

- Belaunaldi ezberdinak biltzea
- Genero oreka gordetzea
- Euskararekiko urruntasuna / hurbiltasuna ziurtatzea
- Begirada berriak (LGTBI+, *influencer*) integratzea
- Lurraldetasuna / eremu soziolinguistikoak aintzat hartzea
- Irekia / eraikitzailea izatea
- Elkarbizitzarako jarrera erakustea
- Intersektorialtasuna aplikatzea: Erakunde publikoak, herri mugimenduak, aisialdia, euskal kultura, lan jarduera, elkarbizitza
- Boterearen eta ezagutzaren dinamika demokratikoa bermatzea: adituak eta arituak.

4.4. Prozesuaren egitura

Elkarrizketa prozesuaren eta Aldaketa Teoriaren lanketa kolektibo eta inklusiboa jarduera eta ekitaldien sekuentzia baten bidez egituratu zen. Alde batetik, ETERen topaketak egin ziren. Bestetik, elkarrizketa taldeak gizarteko beste identitate sozial batzuekin interakzioan egotea ziurtatu zen, Kontraste Taldeen bidez. Bestalde, Kontraste Taldeen definizio eta osaketarako, euskararen erabilerari eragiten dion gizarteko lagin esanguratsu bat eratzea bilatu zen, honen ekarpen eta begiradak jaso ahal izateko. Finean, euskarari eta erabilerari buruz dauden esperientzia eta pertzepzioak integratzeko helburuarekin egin ziren kontrasteak.

Prozesu osoan hainbat aktorek parte hartu zuten, era ezberdinetan eta une ezberdinetan:

- *Elkarrizketa Talde Eragilea (ETE)*. Hamalau lagunez osatutako talde hau euskararen ekosistemako hainbat aktorek osatu zuten eta anitza zen bere izaeran. Bere zeregin nagusia hurrengo urteetan euskararen erabilera nola bultzatu hausnartzea izan zen, jarraitu beharreko norabidea proposatuko zuen Aldaketa Teoria sortuz.


ETE bost aldiz bildu zen 2022ko abendu eta 2023ko uztaila artean, honako formatuetan: sarrera-afaria, egun bateko 2 tailer eta 2 asteburu osoko bi bizikidetza. Azpimarratu beharra dago ETEko kideak borondate hutsez aritu zirela lanean. Taldeko kide guztiek euskaldunak baziren ere, kideen artean euskararekiko askotarikoa pertzepzio, bizipen eta atxikimendu mailak zeuden.

- *Kontraste Taldeak (KT)*. ETE beste eragile batzuekin elkarerreragitan aritu zen, kontraste-taldean eta elkarrizketa pertsonalen bidez. Lehen fase batean, gai eta eragile sektorialetan oinarritutako kontrasteak egin ziren: lan-mundua, gazteak, erdaldunak, etorkinak eta herri mugimenduak. Bigarren fasean, berriz, lurraldetasuna landu zen eta sistema politiko-instituzionala ere txertatu zen. Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eta Euskal Erkidego Autonomoan saio bana egin ziren. Bi kontraste talde gazteleraz egin ziren, erdaldunena eta etorkinena. Lan munduko eta Nafarroako herri mugimenduen saioak ele bitan egin ziren. Euskararen ezagutza eta atxikimenduari dagokienez, askotariko profilen parte hartzea bilatu zen saio guztietan.
- *Kongresu Batzordea (KB)*. Topaguneko bazkideekin osatutako batzorde honek 2023ko honako zereginak izan zituen: Topagunearen Kongresurako prozesuaren diseinua eta metodologia erabakitzea, Kongresurako txostenak lantzea eta bazkideekin hauek partekatze foroan lanketa eta jarraipena egitea. Bere arduren artean egon da besteak beste, ATren prozesua Kongresuaren beharrekin artikulatzea.
- *Euskara Elkarteak (EE)*. Elkartetako ordezkariak ETEn, Topaguneko barne kontrasterako saioetan eta Kongresu Batzordean parte hartu zuten. Prozesua abiatu aurretik ere elkarteekin hainbat saio egin ziren Aldaketa Teoriaren metodologia aurkeztu eta proposamenaren inguruko zalantzak argitzeko.
- *Topaguneko lantaldea (Federazioa)*. Federazioko lankideek aktiboki parte hartu zuten prozesuan. Kontraste Talde gehienak Topaguneko teknikariak dinamizatu zituzten eta Topagunearen barne kontraste-saioetan ere parte hartu zuten.
- *Idazkaritza Teknikoa (IT)*. Topaguneko idazkaritza teknikoak honako zereginak izan zituen: ETEren prestakuntza, sistematizazioa, logistika, dinamizazioa eta komunikazioa. Idazkaritza Teknikoak idatzi ditu prozesuan zehar landu diren Aldaketa Teoriaren bertsioak, beti ere dinamizatzailearen irizpide eta laguntzarekin. Proposamen hauek ETEren esku jarri ditu, berauek baloratu, egokitu eta osa ditzan.

- *On-line hitzaldiak.* ETErentzat interesgarriak ziren gaietan sakontzeko, hainbat aditurekin on-line hitzaldiak antolatu ziren.
- *Badalab²:* laborategiaren monitarizazioan laguntzeko Badalabeko teknikariek ETEren lehenengo bi lan saioetan parte hartu zuten behatzaile gisa. Lehenengo bizikidetzat mintegiko ebaluaketan eta prozesurako metodologiaren ebaluaketan parte hartu zuen eta prozesuaren inguruko balorazio txostena jarri zuen Topagunearen esku.

Ondorengo diagraman azaltzen da nola lotu izan ditugun prozesuaren (g)uneak, ekintzak eta aktoreak.

5. Diagrama. Batera Jauzi prozesuaren egitura



Iturria. Egileak

- Badalab hizkuntza berrikuntzarako laborategia da, euskara biziberritzeko eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko esperimentazio gunea. Informazio gehiagorako: <https://badalab.eus/>

3. Baldintza: Euskaldun eta euskaltzale izateko imajinario eta identitate kolektibo eguneratuak dauzkagu: askotarikoak, inklusiboak, ilusionagarriak, erakargarriak eta dinamikoak, narratiba propioa dutenak. Hauek elikatzen laguntzen duen ekosistema kultural eta komunikatiboa daukagu.

Prozesuaren baitako organo, batzorde eta bestelako lanketarako foro guztietan euskaltzaleen elkarteetako kideen parte-hartzea bermatu zen. Gobernantza sistema honekin arituen eta adituen esperientziaren arteko injustizia epistemikoko dinamikak minimizatu nahi izan ziren.

5. EMAITZAK ETA IKASKETAK

I

5.1. Emaitzak

ETEn zazpi hilabeteko lana Aldaketa Teoriaren txostenarekin amaitu zen. Lan hau 2023ko irailaren 22an aurkeztu zuen ETE taldeak Topagunearen Batzar Nagusian. Honenbestez, taldeak euskararen erabilera jauzi bat eman ahal izateko bost baldintza nagusi definitu zituen. Elkar lotuta dauden baldintzak dira, ikuspegi oso baten errelatoa dakartena. Jarraian baldintzen formulazio laburra aurkezten da:

Euskararen erabilera goranzko jauzia emateko baldintzak (ETE)

1. Baldintza: Mugimendu euskaltzale anitz eta sendoak eragiletza lan eraldatzailea egiten du, komunitategintzan oinarrituta eta gizartearekin konektatuta, bi norabideko elkarrizketan.
2. Baldintza: Harreman eta sare sendoak eratu ditugu askotariko eragile eta mugimenduen artean. Horretarako hizkuntza-minak eta gatazkak lantzeko beharrezko mekanismoak jarri ditugu martxan.
3. Baldintza: Euskaldun eta euskaltzale izateko imajinario eta identitate kolektibo eguneratuak dauzkagu: askotarikoak, inklusiboak, ilusionagarriak, erakargarriak eta dinamikoak, narratiba propioa dutenak. Hauek elikatzen laguntzen duen ekosistema kultural eta komunikatiboa daukagu.
4. Baldintza: Euskal hiztunak sortzeko bizitzako behar ezberdinei eta adin guztiei erantzungo dien eredu unibertsala daukagu, hiru zutabetan oinarritua: hezkuntza arautua, euskaltegi-sarea eta sozializazio komunitario antolatua eremu ez formalean. Eredu orekatua da, malgua, doakoa, eraginkorra eta motibatzailea.
5. Baldintza: Erabileraren arorako akordio sozio-politiko-instituzional berriak ditugu, eremu administratibo bakoitzetik eratuak: erantzukizun partekatutik lege eta araudiak eguneratuta eta zeharkako hizkuntza politikak inplementatuta.

Lehenik eta behin, argitu nahi dugu artikuluko honen helburua ez dela baldintza hauetan jasotako edukiak aztertzea. Gure arreta gehiago jarriko dugu emaitza horietara heltzeko izandako talde-prozesuan. ETEk baldintzak landu eta adosterako orduan marko teorikoak eta diseinu metodologikotik proposatutako premisek izandako eragina eta baliagarritasuna aztertuko dugu finean.

Ikuspegi sistemikoz egin dugu lan-prozesuan eta izaera hori dauka baita ere ETE taldeak landutako Aldaketa Teoriaren proposamenak. ETEren txostenean “baldintzak zehazteko ikuspegia” atalean nabarmentzen da ikuspegi hori. Baldintza guztiak elkar lotuta daude eta narratiba propioa eraiki da horien gainean.

5.2. Ikasketak

Osagarritasun printzipioa

ETEn aniztasuna balioan jarri eta askotariko identitate eta hiztun-profilak elkarrizketan jarrita, osagarritasun printzipioarekin jarduteak ATren prozesuari mesede handia egin diola uste dugu. Printzipio hau hainbat ikuspegitatik aplikatu da.

- *ETEn osaketan.* Osagarritasuna bermatzeko erabakitako irizpideak aipatu ditugu aurretik. Euskaraz ulertu baina hitz egiten ez zuen kiderik ez zen lortu, baina beste ezaugarri asko bermatu ahal izan dira, lurraldetasuna, adina, adituak eta arituak, jatorri ezberdinak, generoa eta abar.
- *ATren garapen prozesuan.* Aitortu beharra dago ez zela erraza izan begirada guztiak modu osagarrian txertatzea; elkarrizketa konplizeak izan ziren batzuetan eta tentsio handikoak eta deserosoak bestetan. Hala ere, prozesuak erakutsi digu posible dela elkarrizketa sortzailerako espazioak gauzatzea, osagarritasunean eta aniztasunean oinarrituta. Ikuspegi osagarri hori erabakigarria izan zen ATren garapenean koherentzia mantentzeko. Gainera, parte-hartzaileen heldutasunak eta jarrera eraikitzaileak barneko eta kanpoko oztopo guztiak gainditzea ahalbidetu zuten.

Ikuspegi dialogikoa

Kulturalki ohituago gaude eztabaidara elkarrizketara baino eta lan pedagogiko handia egin da ETEn dinamikatan elkarrizketaren propo-

**5. Baldintza.
Euskal hiztunak
sortzeko
bizitzako behar
ezberdinei eta
adin guztiei
erantzuneko dien
eredu unibertsala
daukagu, hiru
zutabetan
oinarritua:
hezkuntza
arautua,
euskaltegi-sarea
eta sozializazio
komunitario
antolatua eremu
ez formalean.
Eredu orekatua
da, malgua,
doakoa,
eraginkorra eta
motibatzailea.**

Beharrezko baldintzak elkartzen direnean, miraria gertatzen da: jendeak hasierako erresistentziak gainditzen ditu, elkartu, hitz egin, hausnartu eta ideia berriak sortzen ditu modu kolektiboan, desberdintasunetatik harago. Halakoa izan da "Batera Jauziko" esperientzia.

samena gehiago txertatu ahal izateko. Harremantzeko eta solasteko bi era hauen arteko tentsioa hainbatetan agertu da prozesuan, batez ere ETEren osoko bilkuretan.

Oro har, taldearen elkarrizketa-gaitasunak aurrera egin zuen kideen arteko konfiantza garatu ahala. Horretarako funtsezkoak izan ziren egin-dako lan pedagogikoa eta bereziki kideen arteko harreman informalak garatzeko izan ditugun espazio informalak: kaferako tarteak, otorduak eta gaubelak elkarrekin egitea, espazio ezberdinak elkarrekin deskubritzea. Elkarbizitzek asko lagundu zuten arlo horretan.

Aurrekoa horrela izanda ere, gizartean desberdinen arteko elkarrizketak erronka izaten jarraitzen duela uste dugu. Ariketa honek erakutsi duenez, beharrezko baldintzak elkartzen direnean, miraria gertatzen da: jendeak hasierako erresistentziak gainditzen ditu, elkartu, hitz egin, hausnartu eta ideia berriak sortzen ditu modu kolektiboan, desberdintasunetatik harago. Halakoa izan da *Batera Jauziko* esperientzia.

Prozesu iteratiboa eta interaktiboa

Alderdi interaktiboa ETEren topaketen metodo parte-hartzailean islatu zen, baita Kontraste Taldeetan ere. Elementu iteratiboak AT lurreratzen lagundu zuen, modu hausnartuan, urrats bakoitzean landutako AT berriz aztertuz eta berrikusiz, eduki sendo eta argietara iritsi arte. ETEko kide baten hitzek ondo azaltzen dute bizi izandakoa: "Gure (nire) pentsamendu linealaren kontzientzia argiagoa izan dut. Galdera eta gonbidapen egokiak eginda, jende ezberdinaren hasierako aurreiritziak gainditu daitezkeela, lanean jartzen gaituztenean, ondo gidatuak bagara, gure onena ematen dugulako".

ETeko pertsonentzat eta euskalgintzarentzat oro har sentikorrak ziren elkarrizketako elementu batzuk integratzen eta adosten ere lagundu zizun iterazioaren dinamikak. Lehen tailerrean euskararen politizazioaren auzia agertu zen, eta horrek nola eragin izan dien, besteak beste, euskararen biziberritzeari eta erabilerari. Gaia lehenengo bizikidetzan agertu zen berriro, eta baita kontraste taldeetan ere. Iterazio hauek baldintza baten formulazioan eragina izan zuen.

Iterazio desberdinek ETE prozesuan berez azaleratu zen zerbait arrazionalizatzen lagundu zuten, karga emozional handiarekin. "Hizkuntzen minak" terminoak mugimendu handia eta deserosotasunak eragin zi-

tuen, bai ETEn eta baita zenbait Kontraste Taldeetan ere, Topagunearekin egindakoetan barne. Kaltetutako harremanei buruzko ikuspegi hau kontrastatzeko hartutako denbora lagun, gai hau modu tradizionalen negoziatu baino, modu organiko eta kolektiboan ulertu eta adostu zuen ETEk, bigarren baldintzaren formulaziora heldu arte.

Sormena

Sormena sustatzeko proposamen metodologikoak hainbat modutan jorratu ziren: ikuspegi konstruktibista, gorpuztasuna, AT-ren urrats metodologikoak, aldaketaren 4 dimentsioak, prototipoak, arrainontzia, taldeen lanen arteko kontrasteak eta nahasketak, bizikidetzak, kontraste taldeak, etab.

Taldeko partaideak, nahiz eta bizipen eta tradizio epistemologiko ezberdinetatik etorri, proposamenei egokitzen eta prozesuan aurrera egiten joan ziren; ahaleginarekin, bai; baina erabakitasunez ere bai. Elkarrizketa-taldeak sortutako proposamenaren edukiak eta logika sortzaileak izan direla uste dugu eta bidean sortutako ez-erosotasunak gaindituta, taldearen irekitasuna eta heldutasuna eredugarria izan dela.

Kanal anitzeko ikaskuntza

Printzipio hau modu mugatuan landu ahal izan genuen. Gorputza eta mugimendua hainbat ariketa egiteko baliatu genituen. Hala ere, gorpuztaren lanketa sakonagoa egiteko asmoa ezin izan genuen aurreikusi bezala bete. Dinamizaziotik feminitatean eta maskulinitatean oinarritzen zen proposatutako gorputz ariketak ikuspegi feministarekin talka egin zuen eta gorputz ariketa bertan behera uztea erabaki zen.

Hori horrela gertatu bazen ere, deserosotasuna eta tentsioa eragin zituen une honi esker emozio horiek adierazteko espazioa agertu zen eta elkarrizketa sakon baterako aukera ireki zuten. Generoarekin eta feminismoarekin lotutako ideologiengatik inguruko elkarrizketa ireki zen alde batetik. Bestetik, gorputz ariketarako zailtasunen inguruan ere hitz egin zen.

Elkarrizketan, besteak beste, zenbait parte-hartzailek aitortu zuten nola beren eredu mentalek mugatu egiten zuten aldaketa-prozesuetan izan dezaketen (des)ikasteko gaitasuna.

***Elkarrizketa-
taldeak sortutako
proposamenaren
edukiak eta
logika sortzaileak
izan direla uste
dugu eta bidean
sortutako ez-
erosotasunak
gaindituta,
taldearen
irekitasuna eta
heldutasuna
eredugarria izan
dela.***

**Analisiaren
konplexutasunak
gizarte gisa
eskuartean
dugun erronkaz
jabetzen lagundu
zuen. Honako
ideia indartu
zen: erronka
gizarte osoarena
da, ez bakarrik
Topagunearena
edo
euskalgintzarena.**

Dinamizaziotik ez dugu beti asmatu, baina taldea zaintzeko ahalegina eta taldeak berak dinamizazio taldea zaintzeko izan duen jarrera, erabakigarriak izan dira prozesuarekin aurrera egiteko. Ikasketa sozialerako prozesu hauetan dinamizazioak ikasketa prozesuan parte hartzen du taldearekin batera eta ikuspegi horretatik ETE taldearen eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu.

Gure esperientzian ez da erraza gorpuztasuna espazio sozio-instituzionaletan txertatzea. Hala ere, hori egiteko modu ez gatazkatsuak esperimentatzen jarraitzeak merezi duelakoan gaude.

Begirada sistemiko-konplexua

Interdependentziari dagokion premisa hori prozesu osoan zehar oso presente egon zen.

Begirada sistemikoa erabili zen ETEren osaketarako eta baita kontraste taldeen diseinurako ere. Lurraldetasuna bermatzeak eta parte hartze politiko eta administratibo konplexua zaintzeak analisia zaildu zuten, baina ez modu kaotikoan. Apurka-apurka euskararen erabileran jauzi egiteko behar diren baldintza desberdinen artean dauden interdependentzia handiak azaleratu ziren modu koherentean.

Bestalde, landutako Aldaketaren Teoriak berak begirada sistemiko hori islatzen du nahi den aldaketarako baldintzen konfigurazioan. Sistemikoki artikulatuta dauden bost baldintza dira, elkarrekiko lotura handiak dituztenak.

Horrez gain, ikuspegi sistemikoa oso presente egon zen denborari dagokionez: iraganeko pentsamendu eta bizipenek eragina izan zuten orainean izandako elkarrizketa eta sentipenetan eta horiek kontuan hartuta eraiki da etorkizunerako Aldaketa Teoriaren proposamena.

Analisiaren konplexutasunak gizarte gisa eskuartean dugun erronkaz jabetzen lagundu zuen. Honako ideia indartu zen: “erronka gizarte osoarena da, ez bakarrik Topagunearena edo euskalgintzarena”. Era berean, agerian utzi zuen gaira hurbiltzeko modu bat baino gehiago dagoela, eta egia horiek guztiek leku bat dutela gure AT-ren formulazio konplexuan. Ikuspegi horretatik integrazio lan garrantzitsua izan zela esango genuke.

5.3. Bestelako ikasketa orokorrak

Aldaketa Teoriaren proposamen metodologikoaz

Batera Jauzi Aldaketa Teoriaren premisa metodologikoen artean, episteme ezberdinen arteko gurutzaketa eta parte hartze demokratiko sakona landu dira. Gizarte eremu bakoitzeko adituen parte hartzea ez ezik, herritar soilena propio bilatu da, baita euskaratik urrunen egon daitezkeen herritarrena ere. *Batera Jauzi* prozesuaren proposamen metodologikoari buruz Badalabek, besteak beste, honakoa jaso du bere txostenean:

“...hizkuntzaren biziberritzeko prozesuaren jokalekua egungo mundua da eta pertsonak dira. Beraz, jokaleku konplexuan ari gara.

Testuinguru edo sistema konplikatueta aritzeko beharrezkoak dira adituak eta epe ertaineko/luzeko estrategia eta planifikazioak. Sistema konplexuetan lan egiteko, ordea, gakoak dira adimen kolektiboa (edo sensemaking.a) eta finkatutako lan ildoen baitan ekinbide edo ekintza desberdinen esperimendazioa, zeintzuen helburua izango den ikasketa erauztea hurrengo esperimendazio zikloa proposatzeko.

Adimen kolektiboaz ari garenean adierazi nahi da egun, baliagarriagoa dela sistemaren puntu desberdinetan kokatzen diren pertsona asko eta askotarikoak biltzea, hizkuntzaren biziberritzean adituak diren batzuk bakarrik batzea baino. Izan ere, beharrezkoak dira ikuspegi asko eta askotarikoak, landu nahi den problematikari ahalik eta erpin desberdin gehienetik begiratzeko aukera egon dadin. Testuinguruaren ikuspegi osoagoa jasoko da modu honetan, abiapuntuko egoeraren eta helburuaren diagnosi eta mapa osoago bat jasoko da. Sarrerako hipotesiak identifikatuko dira, eta horietan eragiteko aukera posibleak, eragina biderkatzeko balizko palankak identifikatuko dira. (...)

Topaguneak proposatu duen kongresura begirako “Aldaketa Teoriaren” lan-keta eta Elkarrizketa Taldearen aktibazioa marko horretan kokatzen dira bete betean.

Euskal hiztun komunitatea osatzen duen sistemaren puntu desberdinetan kokatzen dira taldea osatzen duten kideak. Euron gorputzak, bizipenak eta jakintzak jarri dira erdigunean. Eskaini zaizkie testuinguru egokiak eta dinamizazioa, norberaren onena ateratzeko, eta jakintza kolektibo bat eraikitzeko.

Adimen kolektiboaz ari garenean adierazi nahi da egun, baliagarriagoa dela sistemaren puntu desberdinetan kokatzen diren pertsona asko eta askotarikoak biltzea, hizkuntzaren biziberritzean adituak diren batzuk bakarrik batzea baino. Izan ere, beharrezkoak dira ikuspegi asko eta askotarikoak, landu nahi den problematikari ahalik eta erpin desberdin gehienetik begiratzeko aukera egon dadin.

**Kontraste
taldeak osatzeko
euskaraz
ez zekiten
herritarrek
identifikatzeko
nondik hasi
ez genekien
eta agerian
utzi du xede-
talde honekin
harreman gutxi
daukagula
Topaguneko
bulegoan
eta oro har
euskalgintzan.**

Prozesuaren emaitza izan da estrategia proposamena, zeinak barnean biltzen duen ikuspegi partekatu bat, hau gertatzeko bete behar izan diren baldintza batzuk (hipotesi mailan), eragile mapa eta adierazle batzuk.” (Badalab 2023)

Artikulu honen egileok bat egiten dugu Badalaben irakurketarekin eta parte hartze mota honek duen gaitasun eraldatzailea azpimarratu nahi dugu era berean.

Demokrazia epistemikoa

Topaguneak koherentziaz jokatu du herritarrengana hurbilduta eta hauen jakintza euskararen inguruko adituen jakintzarekin harremanetan jarrita. Kontraste taldeetako parte-hartzaileek, bereziki erdaldunek eta etorkinek, honelako espazio gehiagoren beharra azpimarratu zuten. Zalantzarik ez dugu episteme ezberdinekin jokatzeko ezagutza berriak ekarri dituela prozesura, aurreiritzi asko hautsi direla eta emaitza baliagarria izan dela.

Ahalduntze-prozesua

Dinamizazio mota hau bertan parte hartzen duten talde-kideentzat ahalduntze-prozesua izan daiteke. Taldeko bizikidetza-saio batean ETEko kide batek hala pertzibitzen zuela adierazi zigun.

Euskaratik urrunago dauden herritarrekin harremana hartzeko zailtasunak

Kontraste taldeak osatzeko euskaraz ez zekiten herritarrek identifikatzeko nondik hasi ez genekien eta agerian utzi du xede-talde honekin harreman gutxi daukagula Topaguneko bulegoan eta oro har euskalgintzan. Ahalegin eskerga egin behar izan dugu erdaldunak identifikatu eta dinamikara ekarri ahal izateko.

Prozesuaren exijentziaz

Borondatezko parte hartzean oinarrituta, exijentzia handiko dedikazioa eta lana eskatu die prozesuak ETEko kideei. Ondorioz ETEko kide guztiek ezin izan dute lan-saio guztietan parte hartu eta hein batean, eraikuntza kolektiboa eta bere logika iteratiboak moteltzea ere ekarri ahal izan zuela uste dugu. Era berean azken txanpan, bereziki txostena osatzeko garaian, neke handia metatu zen taldean. Honelako parte-har-

tze prozesuetan borondatezko lanean dabiltzan kideen denborak ondo zaintzea komeni da.

Borondatezko lana eta erantzukizuna

Mardula izan da ETEko kideek egindako lana eta erantzukizuna ere halakoa izan da. Pisu hori hainbatetan adierazi zuten ETEko kideek, beraien lana baliagarria izango ote zen zalantzan jarrita. Hala ere, lanarekin aurrera egin zuten kemen eta erresilientzia handia erakutsita.

Rolak

Talde-prozesuan taldearen baitako sinesmenak, sentipenak eta portae-
rak adierazten zuten rol asko azaleratu ziren. Rol horietako batzuek
indar handia hartu zuten eta kideen aldetik modu esplizituan eta erre-
pikakorrean adierazi ziren; beste batzuk baztertuak izan ziren, eta beste
batzuek modu subkontzientean jokatu zuten.

- Azaleratutako beldurrak: norberak pentsatzen duena esateari, ga-
tazka sortzeari, ez jakiteari, epaitua izateari, eta abar. Era beran
zuhurtzia, zaintza eta kemena eskatzen duten gai delikatuak uki-
tu zirela adierazten digu beldur horrek.
- Pentsatzeko edo egiteko moduak aldatzeko erresistentzia. Hain-
batetan agertu zen proposamen metodologikoarekiko edota landu
ziren gai batzuekiko erresistentzia. Barne kritikak eta erresisten-
tziak oso naturalak izan ohi dira honelako prozesuetan eta horiei
eusteko eta aurrera egiteko talde bideratzailearen konbentzimen-
dua eta partaideen zein taldearen zaintza funtsezakoak izan dira.
- Aldaketa Teoriaren metodologiak, norbera eraldatzeko gaitasun
eta mugen kontzientzia pizteko dinamikak proposatu ditu, ohiko
metodoek ez baitute sakoneko sentipen horietara heltzeko tres-
narik. Hau guztia oso baliagarria izan da taldearentzat, honako
kontzientzia barneratzeko: euskararen biziberritze-prozesuan
gizarteari eskatzen ari gatzazkion ahaleginaren tamaina eta pro-
zesu horrekin aurrera egiteko gizartea zaintzeko eta laguntzeko
dagoen beharra.
- Kolektiboa. Kolektibo bateko kide izatearen zentzua oso presen-
te egon zen. Taldeak heldutasuna erakutsi zuen prozesuaren une
zailetan eta hainbat tentsio eta une gatazkatsu gainditzeko gako
erabakigarria izan dela uste dugu.
- Erresilientzia. Bai ETE Taldeak eta baita talde bideratzaileak ere,

**Aldaketa
Teoriaren
metodologiak,
norbera
eraldatzeko
gaitasun
eta mugen
kontzientzia
pizteko
dinamikak
proposatu ditu.
Hau guztia oso
baliagarria izan
da taldearentzat,
honako
kontzientzia
barneratzeko:
euskararen
biziberritze-
prozesuan
gizarteari
eskatzen ari
gatzazkion
ahaleginaren
tamaina eta
prozesu horrekin
aurrera egiteko
gizartea zaintzeko
eta laguntzeko
dagoen beharra.**

bere erresilientzia erakutsi zuen hainbat alditan. Tentsio handiko uneak, kritikak eta frustrazioak agertu ziren prozesuan aurrera egin ahala, eta horiek kudeatzeko barne-mekanismoak landu ziren. Ez da harritzekoa rol horrek hainbesteko indarra izatea horrelako testuinguru batean, erresilientzia baita hizkuntza gutxituen ezaugarrietako bat.

Bukatzeko, esan beharra dago, ikasketa hauek guztiak prozesuko koordinazio orokorraren ardura eta dinamizazioaren ardura izan dugun bi lagunon artean partekatutako ikasketa batzuk direla, beti ere, prozesuaren izaerari lotuak. Ikasketa guztiak ezin izan ditugu artikulu honetara ekarri. Era berean, beste ertz askotatik hel dakioke prozesuaren analisiari, baina hori ez dagokigu guri bakarrik. Prozesuaren edukizko emaitzak azter litezke, bertan parte hartu duten askotariko parte hartzaileen iritzi eta ekarpenak edota prozesuaren aurrera begirako eragin eta ibilbideak iker-gai ugari eskaini litzakete. Emaitzari dagokionez, Euskaltzaileen Topaguneak Batera Jauziko ondorioetan ardaztu du besteak beste datorren hamarkadarako ibilbidea eta azaroaren 18an bere bazkideekin egindako Kongresuan, aho batez onartu da aurkeztutako proposamena.

ESKERTZAK

I Gure esker ona adierazi nahi diegu lehenik eta behin Elkarrizketa Talde Eragileko kideei jendarte laborategi honetan parte hartzeko erakutsitako konpromiso eta kuraiaगतिक. Honako kideek osatu dute taldea: Lur Albizu, Iker Atxa, Karmelo Ayesta, Eneko Calle, Idurre Eskisabel, Jon Peli Etxeberria, Irati Iciar, Tarana Karim, Maddi Kintana, Jasone Mendizabal, Iñaki Sagardoi, Joseba Sarriomandia, Arianne Unamuno eta Alex Vadillo.

Eskerrik beroenak gurekin batera lanean aritu diren Goiatz Urkijo eta Andoni Urzelairi idazkaritza teknikoan egindako lan itzelagatik.

Oso eskertuta gaude baita ere kontraste-taldeak dinamizatzen aritu diren Topaguneko teknikariei, hizlari aritu direnei eta kontraste-taldeetan parte hartu duten lagun guztiei.

Bukatzeko, eskerrik beroenak Euskaltzaileen Topaguneari eskainitako konfiantzagatik eta erakutsitako eskuzabaltasun eta ausardiagatik. ●

BIBLIOGRAFIA

- Bohm, David. 1980. *Wholeness and the implicate order*. London: Routledge
- Cornwall, Andrea eta John Gaventa. 2001. From users and choosers to makers and shapers. Repositioning participation in social policy. Working Paper 127. Sussex: IDS
- Euskaltzaileen Topagunea. 2011. "XXI. Mendeko Euskaldunon Elkartearen Oinarriparak"
- Fals-Borda, Orlando eta Mohammad Anisur Rahman. 1991. *Action and knowledge. Breaking the monopoly with participatory action-research*. London: Intermediate Technology Publications
- Fricker, Miranda. 2007. *Epistemic Injustice. Power and the Ethics of Knowing*. Oxford: Oxford University Press
- Fricker, Miranda. 2017. «Evolving concepts of epistemic injustice». In Ian James Kidd, José Medina, and Gaile Pohlhaus, Jr. *The Routledge handbook of epistemic injustice*. New York: Routledge
- Fung, Archon eta Olin Wright. 2001. «Deepening Democracy: Innovations in Empowered Participatory Governance». In *POLITICS & SOCIETY*, Vol. 29 No. 1:5-41
- Funnel, Sue eta Patricia Rogers. 2011. *Purposeful Program Theory: Effective Use of Theories of Change and Logic Models*. San Francisco: Jossey-Bass
- Gaventa, John. 2006. *Triumph, Deficit or Contestation? Deepening the 'Deepening Democracy' Debate*. Sussex: IDS
- Hajer M., Wagenaar H. (ed). 2003. *Deliberative policy analysis. Understanding governance in the network society*. Cambridge: Cambridge University Press
- Heron, John. 1996. *Co-operative inquiry. Research into the human condition*. London: Sage Publications
- Herzig, Maggie eta Laura Chasin. 2006. *Fostering dialogue across divides*. Watertown: Public Conversations Project
- Isaacs, William. 1999. *Dialogue and the art of thinking together*. New York: Doubleday
- James, Cathy. 2011. *Theory of change review. A report commissioned by Comic Relief*. London: Comic Relief

- Kahane, Adam. 2005. *Cómo resolver problemas complejos. Una novedosa manera de hablar, escuchar y crear nuevas realidades*. Bogotá:Norma
- Kolb, David. 1984. *Experiential learning. Experience as the source of learning and development*. New Jersey: Prentice Hall
- Moon, Jennifer. 2004. *A handbook of reflective and experiential learning. Theory and practice*. London:RoutledgeFalmer
- Murguía, Andrea. 2016. "Injusticias epistémicas y teoría social". In *Dilemata* No. 22:11-19. México:UNAM
- Oiartzabal, Goiatz. Badalab. 2023. *Badalab. Aldaketaren Teoria*. Elkarrizketa prozesuaren baloraziorako txostena. Barne dokumentua. Errenteria (Gipuzkoa)
- Pruitt, Bettie eta Philip Thomas. 2008. *Diálogo democrático. Un manual para practicantes*. Washington:OEA/PNUD/IDEA Internacional
- Retolaza, Iñigo. 2010. *Teoría de Cambio. Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los procesos de cambio social*. Guatemala:PNUD/HIVOS
- _____. 2014. *Process oriented theory of change facilitation. Surfing the waves of complexity. An action-learning note*. The Hague:HIVOS
- _____. 2018. "Theory of Change. A compass to help you walk the path of social change". Argitaratu gabeko dokumentua.
- _____. 2023. "Aldaketa teoriara hurbilpen bat". Argitaratu gabeko dokumentua Powerpoint.
- Rogers, Patricia. 2014. *La teoría del cambio*. Florencia:UNICEF
- Saunders, Hal. 1999. *A Public Peace Process: Sustained Dialogue to Transform Racial and Ethnic Conflicts*. Basingstoke: Macmillan/Palgrave
- Wilber, Ken. 2001 (3ra ed.). *Una teoría de todo. Una visión integral de la ciencia, la política, la empresa y la espiritualidad*. Barcelona:Kairós
- Wilber, Ken. 2007. *La visión integral*. Barcelona: Kairós